

## IOSU ARDAIZ LOYOLA

### Navarra: Elementos para su estudio regional

Eusko Ikaskuntza. Burlada. 1980 y 1981. 2 vols. Prólogo de Julio Caro Baroja

Egilea, Obanos-ko semea, ekonomilaria da. “Lurralde antolamendua” da bereziki landu duen saila bere ikasketan, Bilbon eta Madrillen, eta baita bere ikerlanetan ere.

Caro Barojak hitzurrean: “Lo que se reúne aquí servirá para que el estudioso tenga una nueva ‘Figura de Navarra’ en la tradición de los beneméritos trabajadores del pasado que reunieron los datos custodiados en legajos y legajos a través de siglos”.

Ardaiz jaunak eskaintzen digun “Imagina”, batipat ekonomiatik begiratzuz formatzen den irudia da. Joria eta aberatsa ekonomia-egiturak nola-koak diren ikasteko. Ekonomiak gizartearekin dauzkan harreman hestuak ezagutzeko, Nafarroako gizarte-egituraren berri sakon bat edukitzea guziz interesgarri litzatekeela, derizkiot.

Liburua astiro irakurriaz hartu ditudan oharrak hiru sailetan bildu ditut: I) Nafarroako ekonomia; II) Nafarroa eta bere eskualde-ingurua; III) Nafarroako foru-erakundeak.

### 1) NAFARROAKO EKONOMIA

Nafarroak, azkenengo hogeitun urteotan, aldakuntza handia izan du. Industria aldetik, nagusiki. 1940-an, industrian hogeitun mila langile inguru ziren. Hogeitun-hemezortzi urtez gero, 1978-an, 63.320 industriako langile.

Diputazioak “Industriaren Eragintza” deritzan programa sortu zuen 1964. urtean (Programa de Promoción Industrial, P.P.L.).

Bere xedeak hauetxek ziran:

#### 1.º BERTAKO ESKULANARI BERTAN EUTSI

Mende honen lehen partean, 1900-1960 aldian, Nafarroak joaileen kontua etorkinena baino agitz haundiagoa izan zuen. Gainerakoa, 109.264 bizilagun aldeginak. Odol-hustutzea 1960-an gelditu zela, esan daiteke. Nafarroa, urte honez gero, “jende-hartzaile” bihurtu zen. Hamabost urtetan,

1960-75 aldirian, etorkinak 26.829 pertsona gehiago joaileak baino. Nafarroako jendetza, berriz, 92.598 bizilagunez handitu. Industriadaren eraginez, Tudelak, Iruñak, Barrankak, Bidasoa-aldeak, Viana udalak, jende-kopurua goratu zuten. Nafarroatik kanpora jaiok, 92.015 bizilagun bizi ziren 1975-urtean Nafarroan, eta horietatik 13.320 pertsona Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorriak.

## 2.º INDUSTRIA LURRALDE GUZIAN ANTOLAMENDU ONEZ HEDATU

Hamalau poligono industrial sortu ziren hamairu udaletan. Lanpostuak, berriz, Iruñan, Tudelan eta Lodosan, gehienak.

Lurralde guziaren antolamendu on bat iristeko, ez da aski poligono industrialak han eta hemen sortzea. Gainera herrialdeen banakuntza egokia, guziz beharrezkoa da.

Horregatik, autoreak, lehenbiziko tomoan, kapitulo osoa eskaintzen dio “Comercialización” gaiari. Herrialdeak behetik gora sortzea eskatzen du. Udal-agintek, lehenik, herrialdekoekin elkartu eta, gero, herrialde guziak aginte autonomikoarekin, hots, Nafarroa osokoarekin banatu.

Proposatu hogeitabost herrialde edo komarka proposatzen ditu autoreak. Eta banakuntza hau ebakitzeko, kriterio edo erizpide ugari maneatu bide ditu, nahiz estadistikoak nola ez-estadistikoak. Zerrenda luzea badator aipa dugun kapituloan.

Herrialdeetako agintariak sozial-serbitzuak inork baino hobeto presta ditzakete, baita serbitzuak eskatzen dituzten inbersioak hautatu ere. Industriagintzak, alabaina, batera joan behar luke, herrialdeetako sozial-antolamenduarekin, ahalik ondamendi gutxienik bazterretan zabaltzeko. Ez hori bakarrik. Autoreak uste du, Nafarroari erdimailako zenbait hiri eraikitzea komeni zaiola eta ez herri gehien-gehiena Iruña eta beste bi edo hiru hiri zabaletan bildurik egotea.

## 3.º BERTAKO LEHENGAIK BERTAN LANDU

Baso eta mehatzak, lurgintzak eta abelzaingoak ematen dituen ondasunak, ahal den neurrian bertako, Nafarroako, lantegietan eskuz-lantzea lortu nahi izan du, baita ere, Industria Eragintza Programak. Badira zenbait industria-abar hortan lehendik hasiak, esaterako, zerrategi, altzaritegi, konserbategi eta abar.

## 4.º GAZTE OFIZIODUN ETA ESKOLATUENTZAT LANPOSTUAK SORTU ETA BABESTU

Nafarroako Diputazioak “Industria Eragintza”rekin batera Profesional Ikastetxei laguntza eman die. Sei mila inguru ikasle badabilta ikastetxe horietan. Bestalde, nahiz Unibertsitateak nola Teknika-eskolak gazte anitz biltzen dute beren ikasgelatan.

Hezkuntza-sistema eta produzio-sistema ahalik egokienik parekatu nahi ditu, beraz, “Eragintza Programak”. Xehetasun ugari ematen du auto-reak, Irakaskintzari buruz, bigarren tomoan.

## 5.º BERTAKO AURREZKI ETA DIRU-ONDASUNAK BERTAN BARRENA HIGI-ARAZI.

Honetarako “Nafarroako Inbersio-Elkarteak” sortzeko urratsak emanak izan dira.

## 6.º KANPOTIK, ERE KAPITALAK ERAKARRI

Eta, hau dela eta, Diputazioak zenbait laguntza eskeini izan du, kanpoko inbertitzaileak Nafarroara etor daitezzen.

“Industria Eragintzaren Programak” sei helburu horiek lortu nahi izan ditu. Ze fruitu ekarri? Jendetzak aldegitak dakarren odol-galtzea moztu egin du. Mende honen haseratik 100.000 bizilagun kanpora igorriak izan ziren Nafarroatik. 1960-75 aldian arras gutxiagok aldegin du bere herritik kanpora lanbila. Izan ere, jendetza hazi den baino lanpostu gehiago izan dira sortuak hamabost urteko aldi horretan.

Industriagintzak, alabaina, berarekin hazkundera ekarri du. Baina baita gizarteari zenbait kostu eta kalte ere.

Alde batetik, hiribizitza andeatu egin da. Bestalde, lehen herrixkak zeuden lurralde anitz eremu bihurtu dira. Nafarroako zenbait herrialde ahuldu eta jautsi egin dira. Esaterako, Zangotza aldea, Nafarro-erdialdea.

Hazkunde horrek beste akatsik ere badu, produzio-egituretan:

a) Lantegi txikiegiak sortuak izan dira; ehunetik larogeita-hamarrek 50 enplegatu baino gutxiago dituztelarik. Eskas, oso eskas dira 250 lankidetik gora dituztenak.

b) Mekanizazioa arrunta sartu da, oro-har.

d) Enpresario-espiriturik ez da biziki esnatu.

Bistan dago, bestalde, krisiak erdi-erdian jo duela Nafarroak orain hemezortzi urte ekin zion industrigintza berria.

Ardaiz jaunak, ekonomiaren higidurak ekarri dituen gizarte-egiturako aldakuntzak ere agertarazten ditu. Jendetzan agertu direnak, esaterako. Nafarroako jendetza egileak ukan dituen aldakuntzak analizatzen ditu; adin aldetik, sektore eta geografia aldetik, baita profesional-egiturak izan dituen aldakuntza aldetik ere. Aski informazio ematen du herrialde edo komarkak banan-bana hartuz.

Industriagintzan abiatzen den gizarteak auzi eta gudu anitz jasan beharra daduka. Laneko-erlaziotan, 1968.urtean agertu ziren Nafarroan, biziki agertu ere, laneko auzi eta guduak. Autoreak xehetasun anitz ematen du ze kausa, edota nahi ba duzu, ze sustrai izan zituzten 1970-ez geroztik hainbat bizitu ziren lan-erlazioetako guduak.

NAVARRA. “Elementos para su estudio regional”-aren bigarren parte sektore ekonomikoen agerpen bat da. Hiru sektore jakiñeri buruz xeheta-

sun ugari ematen du. Lurgintzaz, abelzaingoaz, baso eta oihanez nahi duzun jakingarri oro Ardaiz-en liburuan aurkituko duzu. Industriaz ere, azterketa sakonago bat eskaintzen digu. Industria-abarren berri banan-banaka. Eta, azpimarratzekoa den alde interesgarria, kostuen aldakorak nola eboluzionatu diren ere ikus dezakegu. Esaterako, lan-kostua, lanaren emankortasuna, energiaren kostua, eta abar.

Eta sektoreen agerpena osatuz, serbitzuen, eraikikuntzaren eta esportazioen berri zabala liburuaren bigarren partea bukatzeko.

## II. NAFARROA ETA BERE ESKUALDE-INGURUA

Ekonomiaren hazkundeak eta etorkizunak eskualde-inguru batean sarturik egotea eskatzen du. Gaurregun, Estatu Komunitate Autonomoetan zenbait aginte uzten ari den une honetan, Nafarroak, nahiz bere agintebidea eduki, hautatu beharra daduka nongo aldera hedatu bere harremanak.

Ardaiz jaunak aitortzen du bere asmoa ez dela arazo hontaz erabaki pertsonal bat ematea. Erizpide objetibo zenbait eskaini baizik ez du egin nahi, bakoitzak har dezan bere erabakia jakinaren gainean.

Erizpideak eskaintzeko hartu duen bidea zera izan da, hots, Nafarroaren egitura sozio-ekonomikoa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Logroño, Huesca eta Zaragozakoarekin alderatzea.

Politiko eta kultural erabakia ere ba dela uste dugu, gure aldetik, Nafarroari sortu zaion erabaki-beharra bere eskualde-inguruarekiko.

## III. NAFARROAKO FORU-ERAKUNDEAK

Sarrera interesgarri batekin hasten da, lehen partearen bigarren kapituloan Ardaiz-ek egiten duen Nafarroako erakunde politikoen agerpena.

Delako “Ley Paccionada, 1841”-ri buruz honela dio: “Esta ley supuso un cambio radical y cualitativo en el porvenir de Navarra, ya que supone el fin de su independencia con desaparición de sus Cortes, Tribunales, moneda, aduanas y en definitiva la conversión automática del Reino en una provincia foral, integrada en la unidad constitucional de España”.

Ondoren, Espainiko Kostitutuzioa, 1978-koa onartuz gero, zernolakoa den Nafarroaren egoera Estaduko Agintearen aurrean aztertzen du.

Honez gain informazio zabala eta aberatsa dator Ardaiz-en liburuan: a) Foru-ahaldundiaz; b) Foru-parlamentuaz; d) “Cámara de Comptos”, edo “Kontuen ganberaz” eta baita e) Nafarroako Haziendaz ere.

Irakurtzaileak gai honetan, Haziendakoan, beste askotan bezala mehatz bat dauka, Foru-zerga sistema nolakoa den ezagutzeko. Eta bide batez, Presupuestoen agerpena ere zehatz dator bai Diputazioaren mailan, nola Udalen mailan.